

Alaitz Vives

KAZETARIA

Periferiara

Badira periferian bizi direnak; hirien periferian, munduaren periferiatan, bizitzarenetan, mugetan bizi direnak. Eta jakin badakigu, erdigunean hain ondo bizi garenok ere posible dugula harako bidea egitea. Periferiara, sistemaren ertzetara joan gaitzake, bidal gaitzakete. Begira duzun horrek bidal zaitzake, periferiara.

Begira ditugun begiei begira osatzen omen dugu gure gua, zure *zua*, nire *nia*. Begirada abegitsuak, lagunaren begiradak, begirada galduak, itsuak eta begiratzen gaituzten arren ikusten ez gaituztenak. Hortaz pentsatzen ari zarela, behin hor nonbait, autopista ertzeko iragarki erraldoietan letra larriz irakurritakoaz akordatu zara. Badirela periferian bizi direnak; hirien periferian, bizitzaren periferian, munduaren periferiatan, mugetan. Eta horrelaxe ikusi zaitu berak, begiratzen zaituen horrek: periferiako.

– Erdiguneak ezin omen ditu ertzekoak maite– gogorarazi dizu lagun batek, telefonoa belarrian, kotxeko giltza eskuan eta alaba besoetan daramazun artean.

– Baina ertzekoak behar ditu, halabeharrez– erantzun diozu. Eta halaxe hasi duzu zentrotik periferiara doan bidea. Bidaia txartelik zenuenik ere ez zenekienean, ezustean.



DANI BLANCO

Burua leihoko kristalean ipinita, parkeek berdeak dirudite, eta urdin dago zerua, eta ez dakizu ze egunkaritan irakurritakoaz akordatu zara: andrazkook omen dugun halako beirazko sabaiaz, eta emakume-ama-langile hitz kate inposibleaz.

Begira dituzun begiek ez dute horrelako hiritarrik nahi haien hiriburuan. Kartzelak lepo daude, manifik modaz pasata, erretzea debekatuta, periodikoak inprimatzeko papera amaitu egin zen, eta merkea da periferiarako noranzko bakarreko errepedeak eraikitzea.

– Emakumea, “joko-arauak ezagutu eta onartzen ditut” laukitxoa markatuko zenuen ala?– galdetu dizu lagunak larrituta. Baina zuk ez duzu horrelakorik gogoratzen. Ez zenekien horiek jokoaren arauak zirenik.

Zorionez, supermerkatu batek postontzian utzitako katalogoan irakurritakoaz akordatu zara: zentrotik zenbat eta urrunago, are eta txikiagoa erdiguneak eragiten duen indarra, txikiagoa da erdigunearen boterea.

Horretaz akordatuta irribarre egin duzu, haraxe zoaz eta hantxe ikusi dituzu garai bateko kantari ezagunak, periodikoetako “plumilak”, Patxi errementaria, eta Mafalda dator hamaitetako manifiaren pankarta-buruan, eta haraxe zoaz jendartera, zapata gorriak oinetan, txorizo bokadi-loa eskuetan, libre, libre, periferian. ■

« Zentrotik zenbat eta urrunago, are eta txikiagoa erdiguneak eragiten duen indarra, txikiagoa da erdigunearen boterea »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Poliki ikusi nuen orain pare bat urte-edo, Hernaniko kalean erosketak egiten, poltsa eskuan. Zirkunstantziek bortxatuta, urte andana pasatua zen elkar ikusi gabe. Donostiako Getaria kaleko Iberdueroko bulegoan ezagutu nuen lantokirako zereginetan zebilela, geroago urnietartuko zen oiartzuarra, jada kantatzen hasia “Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, baina non biziko naiz zuek aparte?”. Ahots katarrosoko bizardun hark, bazuen besteok ez genuen zerbait berezia, Benito baten dotoreziaz parekatzen zuen hura, entzutean agresibitate trumoisu sarkorraz egonezina sor-

Makurka ta

tzen zizuna. “Anaien aurpegian begirada hotza, bihotz berotasuna izaten da motza”. Silaba nota, nota silaba, esaldia konpas, konpasa esaldi, bertso eta koplak, ofizioa ulertuz kantatuak eraikitzen bizia gozatu zuenak utzi digu testamentu gaitza, euskaraz kantatzeko didaktikan oinarritzakoa bilaka daitekeena. “Balio al du gure egjak?”. Horren ondotik borrokatu gara, kantuz ere, arma eraginkorra dela jakitunak eta herriaren arrakasta xede. Asmatu ez izanaren egia bizi nau. Balio izan du hala ere. “Nahiko hunan Beatriz, Chile libre batean, adiskide artean...” bezalako piezak sortzeko ez dira aski ofizioa eta talentua. Anaien begirada epela ere beharko zen. ■